

**IKASLE BIKAINENTZAKO CASILDA
ITURRIZAR ANDREA-EPALTZAREN
ALARGUNA UDAL BEKEN ADJUDIKAZIOA
ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK**

1. Gehienez HAMAR BEKA emango zaizkie Bilboko udalerrian errolatuta dauden DBH-ko 4. mailako ikasleei. Ikasle horiek aurreko urtean ateratako noten batez bestekoa 8,5 edo hortik gorakoa edukiko dute (erlijio eta balio etikoen irakasgaiak zenbaketa horretatik kanpo utzita) eta hautatze-prozesua gainditu beharko dute.
2. Bekak aurreko deialdietan lortu dituzten ikasleei berritu egingo zaizkie; betiere, 3. eta 9. artikuluetan ezarritakoa bete behar dute.
3. Beken ZENBATEKOA hauxe izango da:
 - 450 euro urtean Batxilergo eta Heziketa Zikloetan.
 - 1.100 euro urtean unibertsitate graduatan.
 - Beka Batxilergoko edo Lanbide Heziketako urte 2 eta unibertsitateko gradu bakarra egiteko emango da. Salbuespen modura, gradu-aldaketa bat onartuko da gradu horren lehenengo ikasturtea amaitzen denean.
 - Kanpoan geratzen dira masterrak, doktoregoak, BAMErako prestakuntza-ikasketak eta graduondoko beste ikastaro batzuk.

Ez da dirurik emango kasu hauetan:

- Bekaz laguntzen den ikasturte bakoitzeko batez besteko nota oso ondo edo baliokidea baino baxuagoa denean.
Horretarako, ikaslea aurreko ikasturte osoko ikasgaietan lortutako noten batez besteko aritmetikoa kalkulatu da.
Estatuko lurralde osorako balioa eta izaera ofiziala duten tituluetan kalifikazio-sistema eta europar kreditu-sistema ezartzen dituen irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ikasleak ikasketa-planeko gaietako bakoitzean lortutako emaitzak 0 eta 10 bitarteko zenbakizko eskala baten arabera kalifikatuko dira, dezimal batekin; kalifikazio kualitatiboa ere jar daiteke. Oso ondoren kalifikazioa 7,0-8,9 da.
- Hasieran aukeratutako unibertsitate-graduan aldaketa bat baino gehiago dagoenean.

**BASES REGULADORAS PARA LA
ADJUDICACIÓN DE LAS BECAS
MUNICIPALES DOÑA CASILDA DE
ITURRIZAR-VIUDA DE EPALZA AL
ALUMNADO EXCELENTE**

1. Se adjudicarán un máximo de DIEZ BECAS al alumnado de 4º de ESO empadronado en el municipio de Bilbao que, disponiendo de una nota media mínima de 8,5 puntos en el curso anterior (excluyéndose de dicho cómputo la asignatura de religión y valores éticos), supere el correspondiente proceso de selección.
2. Se renovarán las becas del alumnado que hubiese obtenido las mismas en convocatorias anteriores, siempre y cuando cumpla los requisitos previstos en los arts. 3 y 9.
3. La DOTACIÓN de las becas es de:
 - 450 euros anuales para los niveles de Bachillerato y Ciclos Formativos.
 - 1.100 euros anuales para los grados universitarios.
 - El disfrute de la beca se refiere a 2 años de bachillerato o ciclos formativos y un único grado universitario. Excepcionalmente, se aceptará un cambio de grado una vez concluido el primer curso del mismo.
 - Se excluyen expresamente los másteres, doctorados, estudios de preparación al MIR y otros cursos de postgrado.

Dicha dotación se eliminará definitivamente en los siguientes supuestos:

- Cuando la nota media de cada curso objeto de beca sea inferior a notable o equivalente.
A tal efecto se realizará el cálculo de la media aritmética de las notas obtenidas en las asignaturas del curso anterior completo.
De acuerdo con lo establecido en el art. 5.4 del R.D. 1125/2003, de 5 de septiembre, por el que se establece el sistema europeo de créditos y el sistema de calificaciones en las titulaciones de carácter oficial y validez en todo el territorio nacional, “los resultados obtenidos por el alumno en cada una de las materias del plan de estudios se calificarán en función de la siguiente escala numérica de 0 a 10, con expresión de un decimal, a la que podrá añadirse su correspondiente calificación cualitativa, correspondiendo 7,0-8,9 a notable”.
- Cuando haya más de un cambio en el grado universitario inicialmente elegido.

4. Hautagaiek BALDINTZA hauek bete beharko dituzte:

- Bilbon erroldatuta egotea prozesu osoan eta bekak esleitu arte.
- Ikasturte honetan DBH-ko 4. mailan egotea eta DBH-ko 3. mailan batez beste 8,5 puntu edo gehiago lortu izana. Zenbaketa horretatik kanpo geratzen da erlijio edo balio etikoen irakasgaiak.

5. Ikastetxeek aurkeztuko dute Hezkuntza Sailean bekarako ikasle hautagaien zerrenda. Hain zuzen ere, hauek adieraziko beharko dira:

- Hautagaien NANA, izena eta abizen bi.
- Ikasi duten atzerriko hizkuntza.
- DBHko 3. mailan lortu duten batez besteko kalifikazioa. Horretarako, ikaslearen ikasketa espedientearen fotokopia aurkeztuko da, zuzendariak sinatuta eta zigilatuta.
- Aita, ama edo tutorearen baimena adingabearen datuak kudeatzeko.

6. Bekadunak AUKERATZEKO proba batzuk egingo dira. Proba horietan, hautagaiek aukera izango dute euren ezaguerak, horien aurkezpen egokia egiteko eta horietaz baliatzeko ahalmena erakusteko. Oinarri hauek indarrean sartzen diren unean indarrean dagoen DBHko 4. mailako curriculumerako onartutakoa izango da gai-zerrenda.

7. Probak derrigorrezkoak izango dira (ez da salbuespenik onartuko) eta BOST ARIKETA egin beharko dira jakintza-arlo hauekin lotuta:

- Gaztelania eta gaztelaniazko Literatura.
- Euskara.
- Atzerriko hizkuntza.
- Matematika (euskaraz zein gaztelaniaz erantzun ahal izango da).
- Geografia eta Historia (euskaraz zein gaztelaniaz erantzun ahal izango da).
- Ikasleren batek hezkuntza-arretako berariazko beharren bat badauka eta proba egiteko egokitzapen-mota jakin bat behar badu, izena ematean ikastetxeko orientazio-zerbitzuaren eta Berritzeguneko txostena erantsiko dute.
- Epaimahaiak ezarriko du ariketen hurrenkera eta ikastetxeei proba egiteko lekua, eguna eta orduarekin batera jakinaraziko zaie.

4. Las CONDICIONES que han de reunir las personas aspirantes son:

- Estar empadronadas en el Municipio de Bilbao, durante todo el proceso hasta la adjudicación de las becas.
- Estar cursando 4º de ESO y haber obtenido una puntuación media mínima de 8,5 puntos en 3º de ESO, excluyéndose para dicho cómputo la asignatura de religión y valores éticos

5. Serán los centros educativos los que presenten ante el Área de Educación la relación del alumnado aspirante a las becas, aportando a tal efecto:

- Nombre, dos apellidos y DNI.
- Lengua extranjera que haya cursado.
- Calificación media obtenida en 3º de E.S.O., acreditada documentalmente mediante la fotocopia del expediente académico, firmado y sellado por la Dirección.
- Autorización del padre, madre o tutor/a para el tratamiento de los datos del/a menor.

6. La SELECCIÓN se llevará a cabo mediante la realización de varias pruebas en la que las personas candidatas tendrán la oportunidad de demostrar sus conocimientos, así como su capacidad para utilizarlos y exponerlos de forma adecuada. El temario se corresponderá con el aprobado para el curriculum de 4º de la ESO que se encuentre vigente en el momento de entrada en vigor de estas bases.

7. Las pruebas serán obligatorias (no admitiéndose excepciones) y consistirán en la realización de CINCO EJERCICIOS, relacionados con las siguientes áreas:

- Lengua Castellana y Literatura.
- Euskera.
- Lengua extranjera.
- Matemáticas (se podrá contestar en euskera o castellano).
- Geografía e Historia (se podrá contestar en euskera o castellano).
- El alumnado con alguna necesidad específica de atención educativa que precise determinado tipo de adaptación para la realización de la prueba adjuntará, al realizar la inscripción, informe del servicio de orientación del Centro, así como del Berritzegune.
- El orden de ejecución de dichos ejercicios será fijado por el Tribunal y comunicado a los centros educativos con el lugar, la fecha y la hora de la realización.

- Proba izango den gelara sartzeko euren nortasuna egiaztatu beharko dute, NANA edo pasaporte aurkeztuta. Ariketak hasi ondoren, ezin izango da gelara sartu.
- Hautagaiak 45 minutu izango dituzte ariketa bakoitza egiteko. Egindako ariketa bakoitza 0 eta 10 puntu bitartean kalifikatuko da.
- Probaren azken kalifikazioa kalkulatzeko, ariketa guztietan lortutako puntuen batura egin eta batez besteko aritmetikoa egingo da.
- Hala ere, prozesutik kanpo geratuko dira hauek:
 - Ariketaren bat egin barik utzi dutenak.
 - Ariketaren batean 5 baino gutxiagoko nota atera dutenak.
- Proba eta ariketa guztietan arau hauetan ezarri ez diren gai edo egoerarik gertatzen bada, horiei buruzko zalantza guztiak epaimahaiak ebaztuko ditu.
- Para acceder al aula las personas aspirantes deberán estar obligatoriamente acreditadas mediante la presentación del D.N.I. o pasaporte. Una vez iniciadas las pruebas no se autorizará la entrada al lugar del examen.
- El tiempo del que dispondrán para la realización de cada ejercicio será de 45 minutos. Cada uno de los ejercicios realizados será calificado de 0 a 10 puntos.
- La calificación final de la prueba será la que resulte de obtener la media aritmética, una vez sumados los puntos obtenidos en cada uno de los cinco ejercicios.
- En todo caso, quedarán excluidas del proceso:
 - Las personas candidatas que dejen sin hacer alguno de los ejercicios.
 - Aquellas que obtengan una puntuación inferior a 5 puntos en alguno de los ejercicios.
- El Tribunal queda facultado para resolver cuantas dudas sobre cuestiones o circunstancias no previstas en estas normas puedan presentarse durante la realización de la prueba y cada uno de sus ejercicios.

8. Gobernu Batzordeak egingo du BEKAK EMATEKO Ebazpena, hautaketa egin behar duen epaimahaiak proposatuta, punturik gehien lortu duten lehenengo hamar ikasleen alde. Ikasle horiek dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako egoeretan ez egotearen inguruko aitortpena aurkeztuko dute.

9. Aukeratutako hautagaiak bekari behin betiko UKO EGIN diola ulertuko da, dirua galduta, honako hauek gertatuz gero:

- Lehen ordainketa egiteko hasierako dokumentazioa aurkezten ez badu horretarako adierazitako epearen barruan.
- Aurreko ekitaldietan lortutako bekak berritzeko beharrezko dokumentazioa aurkezten ez badu. Izan ere, urria baino lehen, aurreko ikasturteko emaitzak, hurrengo ikasturteko matrikula eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako bateraezintasunen batean sartuta ez egotearen berariazko adierazpena aurkeztu beharko dituzte.

8 A propuesta del Tribunal encargado de la selección, la Resolución por la que se produzca la ADJUDICACIÓN de las becas se hará por la Junta de Gobierno, a favor de las diez primeras personas aspirantes que obtengan mayor puntuación, previa aportación de una declaración expresa de no encontrarse incursas en ninguna de las circunstancias de incompatibilidad recogidas en el art.13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

9. Se entenderá que un adjudicatario o adjudicataria RENUNCIA definitivamente a la Beca, perdiendo la dotación económica, en los siguientes supuestos:

- Cuando no presente la documentación inicial, a efectos del primer pago, en el plazo comunicado para ello.
- Cuando no presente la documentación necesaria, a efectos de la renovación de becas obtenidas en ejercicios anteriores. En este sentido deberán presentar antes del mes de octubre, los resultados académicos correspondientes al curso inmediatamente anterior, la matrícula del curso siguiente, así como declaración expresa de no encontrarse incursas en ninguna de las circunstancias de incompatibilidad recogidas en el art.13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

10. Oinarri hauetan zehazten ez diren gorabeheretan, Udalbatzarrak 2016ko ekainaren 30ean onartu eta 2016ko uztailaren 20ko BAO (138. zk.) argitaratu zen Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da.

10. En lo no previsto en estas Bases, regirá con carácter supletorio la Ordenanza General reguladora de las bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público, aprobada en fecha 30 de junio de 2016 por el Excmo. Ayuntamiento Pleno y publicada en el BOB núm. 138, de 20 de julio de 2016.